Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 9a, osteguna — 86 — Jueves, a 9 de mayo de 2019

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

2019ko apirilaren 25ean egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen behin betiko onespena ematea gaueko ordutegian diharduten ostalaritzako, aisialdiko eta bestelako establezimenduen kokalekua arautzeko udal ordenantzaren aldaketari.

Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, aldatu diren artikuluen testu osoa argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzekoa den legeria:* urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (123. eta 124. artikuluak); eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

Zarautz, 2019ko maiatzaren 3a.—Alkatea. (2861)

*Gaueko ordutegian diharduten ostalaritzako, aisialdiko eta bestelako establezimenduen kokalekua arautzeko udal ordenantza. Aldatu diren artikuluak.*

*3. artikulua. Sailkapena kategoriaka.*

1. Jarduerak edo establezimenduak ondorengo kategoriatan sailkatzen dira, soilik ordenantza honen aplikazioaren ondorioetarako:

1.1. A Kategoria. Zarata eta usainak direla-eta garrantzi txikiko eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian eragin txikia dutenak.

Hemen sartzen dira ondorengo lokal eta instalazioak:

a. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiak I. taldearen barruan sartzen dituenak.

b. Elikagaiak orokorrean, edariak, ogitartekoak edo plater prestatuak saltzen dituzten elikagaien sektoreko merkataritzako establezimenduak, salmenta automatikoa egiten dutenak barne, baldin eta horien funtzionamenduko ordutegiak zarata eta bibrazioei buruzko udal ordenantzan definitu den gaueko ordutegia barne hartzen badu.

c. Jolas-establezimenduak.

1.2. B Kategoria. Batez ere usainengatik, baina baita zarata txikiengatik ere, eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian nolabaiteko eragina dutenak.

a. Hemen sartzen dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiaren II. taldean jasotako zenbait jarduera: alkoholdun edariak emateko baimena izan arren, zeregin nagusia sukal-

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Zarautz, en sesión celebrada el día 25 de abril de 2019, acordó aprobar definitivamente la ordenanza municipal reguladora de la ubicación de establecimientos de hostelería, actividades recreativas y otras con horario de funcionamiento nocturno.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro de los artículos que han sido modificados.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

*Legislación aplicable:* artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Zarautz, a 3 de mayo de 2019.—El alcalde. (2861)

*Ordenanza municipal reguladora de la ubicación de establecimientos de hostelería, actividades recreativas y otras con horario de funcionamiento nocturno. Artículos modificados.*

*Artículo 3. Clasificación por categorías.*

1. A los solos efectos de aplicación de la Ordenanza las actividades o establecimientos quedan clasificados en las siguientes categorías:

1.1. Categoría A. Establecimientos susceptibles de ocasionar molestias de escasa consideración por ruidos y olores y con poca incidencia en período nocturno.

Se incluyen aquí los siguientes locales e instalaciones:

a. Los incluidos en el grupo I de la normativa autonómica que regula los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas.

b. Los establecimientos comerciales del sector de la alimentación dedicados a la venta de productos alimenticios en general, de bebidas, bocadillos o platos preparados, incluida la venta automática, cuando su horario de funcionamiento alcance el horario definido como nocturno por la ordenanza municipal de ruidos y vibraciones.

c. Establecimientos recreativos.

1.2. Categoría B. Establecimientos susceptibles de causar molestias, fundamentalmente por olores, pero también por ruidos de escasa consideración y con cierta incidencia en período nocturno.

a. Se incluyen aquí algunas las actividades incluidas en el grupo II de la normativa autonómica que regula los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas, con autorización para expender bebidas con alcohol, cuya ocupación sea

EK\CV GAO-I-2019-02861

daritza jarduera dutenak, baina publikoari edariak emateko barra-zerbitzurik gabe, esaterako: jatetxeak, erretegiak, sagardotegiak, autozerbitzuak, hanburgesategiak, elkarte gastronomikoak, txokoak, eta asimilagarriak.

b. Era berean talde honetan sartzen dira edariak emateko barra-zerbitzua duten establezimenduak (taberna-jatetxea), baldin jendearentzako zuzendutako taberna gunearen azalerak honako ezaugarriak baditu:

1. Gehienez 20 pertsonako edukiera, suteen kontrako araudiaren arabera kalkulatuta.

2. Ez dezala okupatu jangelaren azaleraren % 25a.

3. Jatetxeko taberna-gunearen azalera eta jangelaren azalera behar bezala bereizita egotea, arkitekturako elementu finko eta iraunkorren bidez, hartara jangela taberna modura erabiltzeko modurik egon ez dadin.

1.3. C Kategoria. Garrantzi txikiko zarata eta usainengatik eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak eta gaueko ordutegian nolabaiteko eragina dutenak.

a. Hemen sartzen dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiaren II. taldean sartutako gainerako jarduerak eta ordenantza honetako B kategorian sartu gabekoak. Alkoholdun edariak emateko baimena duten lokalak dira, baina horien zeregin bakarra ez da aurreko atalean (B kategoria) adierazitakoa. Hemen sartzen dira: barrak, tabernak, kafetegiak, ardandegiak eta asimilagarriak.

b. Joko-establezimenduak batzuk ere, sartzen dira, esaterako joko-aretoak eta apustu-etxeak.

1.4. D Kategoria. Batez ere zaratengatik eragozpenak sor ditzaketen establezimenduak, eta gaueko ordutegian eragin nabarmena dutenak.

Hemen sartzen dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegiak arautzen dituen Autonomia Erkidegoko araudiaren III. eta IV. taldeetan sartutako jarduerak (jarduera berezi gisa, musika izateko baimena dutenak), hau da:

a. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegien araudiko III. taldean sartutakoak: Hau da pubak, taberna bereziak, eta abar.

b. Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jardueren ordutegien araudiko IV. taldean sartutakoak. Hau da, dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak.

c. Bingo aretoak eta jokorako kasinoak.

2. Udal teknikariek txosten arrazoitua egin ondoren, Udalari dagokio edozein establezimendu bere kategorian sartzea. Hori egiteko, aurkeztutako proiektuan jasotako aurreikuspenak hartuko dira kontuan, edo bestela, legeztatu nahi den jardueraren errealitatea zein den, edozein izanda ere jarri nahi zaion izena. Establezimendu bat kategoria bat baino gehiagotan sartu badaiteke, distantzia arautegi zorrotzena duen hartan sartuko da.

*5. artikulua. Aplikazio esparrua.*

1. Arautegi orokorra aplikatuko da inolako araubide berezirik ez duten gune eta / edo jardueretan.

2. Ez da distantzia-mugarik jartzen A eta B kategorietako establezimenduen artean; ez da, ezta ere, mugarik jarriko A eta B kategorietako establezimenduek C kategoriako establezimenduekiko izan beharreko distantziaren artean. Hala ere, A edo B kategoriako edozein establezimendu eta D kategoriako baten artean 20 metroko tartea eskatuko da.

3. C kategoriako establezimenduen artean, eta horien eta D kategoriakoen artean 20 metroko tartea eskatuko da.

la de restauración sin servicio de barra de consumición para el público como, por ejemplo, restaurantes, asadores, sidrerías, autoservicios, hamburgueserías, sociedades gastronómicas, txokos y los que sean asimilables a estos.

b. Se incluyen también en este grupo aquellos establecimientos que tengan servicio de barra de consumición (bar-restaurante) pero donde la superficie de bar destinada al público, tenga las siguientes características:

1. Aforo inferior al de 20 personas calculado conforme a la normativa contra incendios.

2. Que no alcance el 25 % de la superficie destinada a comedor.

3. Que la superficie destinada a bar y la destinada a comedor del restaurante estén suficientemente diferenciadas mediante elementos arquitectónicos fijos y permanentes, para evitar que el comedor pueda utilizarse como bar.

1.3. Categoría C. Establecimientos susceptibles de causar molestias, por ruidos y olores de escasa consideración y con cierta incidencia en período nocturno.

a. Se incluyen aquí el resto de las actividades incluidas en el grupo II de la normativa autonómica que regula los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas, no recogidas en la categoría B de la ordenanza. Se trata de locales autorizados para expender bebidas alcohólicas pero cuya ocupación exclusiva no sea la señalada en el apartado anterior (categoría B) como, por ejemplo, bares, tabernas, cafeterías, bodegas y los que sean asimilables a estos.

b. Se incluyen también los establecimientos de juego tales como salones de juego y locales de apuestas.

1.4. Categoría D. Establecimientos susceptibles de causar molestias, fundamentalmente por ruidos y con funcionamiento relevante en período nocturno.

Se incluyen aquí las actividades incluidas en los grupos III y IV de la normativa autonómica que regula los horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas (autorizados para disponer de música como actividad especial), a saber:

a. Los incluidos en el grupo III de la normativa reguladora de horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas. Esto es, pubs, bares especiales, etc.

b. Los incluidos en el grupo IV de la normativa reguladora de horarios de los espectáculos públicos y actividades recreativas. Es decir, establecimientos de baile y diversión.

c. Las salas de bingo y los casinos de juego.

2. Corresponde al Ayuntamiento, previo informe razonado de los técnicos municipales, la adscripción de un establecimiento determinado a alguna de las Categorías, conforme a las previsiones contenidas en el proyecto presentado o, en su caso, de la realidad de la actividad que se pretende legalizar, siendo indiferente la denominación que adopte. Cuando un establecimiento pueda adscribirse a más de una categoría, será incluido en aquel que tenga un régimen de distancias más restrictivo.

*Artículo 5. Ámbito de aplicación.*

1. El régimen general se aplicará en aquellas zonas y/o actividades para las que no esté establecido ningún régimen especial.

2. No se establecen limitaciones de distancias entre los establecimientos de las categorías A y B; tampoco se exigirán distancias entre establecimientos de las categorías A y B respecto a las de la categoría C. Sin embargo, entre cualquier establecimiento de la categoría A o B, y una de la categoría D, se requerirá una distancia de 20 m.

3. Entre los establecimientos de la categoría C y, entre estos, y los de la categoría D se exigirá una separación de 20 m.

EK\CV GAO-I-2019-02861

4. D kategoriako establezimenduen artean 50 metroko tartea eskatuko da, eta tarte hori 100 metrokoa izango da, baldin establezimenduetako batek 75 pertsonatik gorako edukiera badu (suteen kontrako araudiaren arabera kalkulatuta).

4. Entre los establecimientos de la categoría D se exigirá una separación de 50 m, que se ampliará a 100 m en caso de alguno de los establecimientos tenga un aforo superior a las 75 personas calculado conforme a la normativa contra incendios.

| | A Kategoria | B Kategoria | C Kategoria | D Kategoria |
|---|---|---|---|---|
| A Kategoria | | | | 20 m |
| B Kategoria | | | | 20 m |
| C Kategoria | | | 20 m | 20 m |
| D Kategoria | 20 m | 20 m | 20 m | 50/100 m |

| | Categoría A | Categoría B | Categoría C | Categoría D |
|---|---|---|---|---|
| Categoría A | | | | 20 m. |
| Categoría B | | | | 20 m. |
| Categoría C | | | 20 m. | 20 m. |
| Categoría D | 20 m. | 20 m. | 20 m. | 50/100 m. |

*6. artikulua. Distantzien eta neurrien zenbaketa.*

1. Lokalen arteko distantzien neurketa metodo erradialaren bidez kalkulatuko da. Distantzia baztertzaileak aurreko artikuluan jasotakoak dira, hain zuzen ere, jarritako establezimendu bakoitzak, bere kategoriaren arabera, instalatu nahi diren beste establezimenduekiko irradiatutakoak. Plano horizontal bakarraren gainean erradioa proiektatuta neurtuko da distantzia hori, kontuan hartu gabe lokal bakoitza zein sestratan dagoen.

2. Bi lokalen artean hurbilen dauden puntuetatik hartuta egingo dira neurketak. Erreferentzia modura honako neurketa-puntuak hartuko dira: jarduera berrirako aurreikusitako lokalaren eta lehendik dauden hurbileneko lokalen kanpoaldeko edozein fatxada.

3. Establezimendu bateko kanpoko fatxadatzat hartuko da eraikinaren berezko fatxada, lokalaren barruko perimetroarekin mugakide dena eta kale batera edo erabilera publikoko espazio batera ematen duena.

*10. artikulua. Lokal-kopuru handiko guneetako arautegi berezia.*

1. Lokal-kopuru handiko gune gisa kalifikatutako areei artikulu honetan aurreikusitako arautegi berezia aplikatuko zaie. Gune horietan establezimendu asko egoteaz gain, kaleen eta plazen konfigurazioak eta dimentsioak halakoak izanda, ezinezkoa izaten da lokalek eta haien erabiltzaileek sortutako zarata eta usainen ondorio gehigarriak ohiko neurri zuzentzaileekin konpontzea.

2. Lokal-kopuru handiko guneen deklarazioa jasotzeko, aurrez, udal ordenantzak onartu edo aldatzeko prozedura izapidetuko da. Espedientea ofizioz edo edozein interesdunek hala eskatuta hasiko da. Edonola ere, deklarazio hori bidezkoa dela frogatzeko txosten tekniko arrazoitua egitea beharrezkoa izango da.

3. Lokal-kopuru handiko area edo guneetan ezin izango da ordenantza honetan arautako jarduera berririk jarri.

4. Lokal-kopuru handiko area edo guneetan, berrikuntzei, handitzeei eta banaketei buruzko arautegi orokorra aplikatuko da (ordenantzaren 7. artikulua).

*Artículo 6. Cómputo de distancias y mediciones.*

1. La medición de distancias entre locales se calculará por el método radial. Las distancias excluyentes son las recogidas en el artículo anterior irradiadas por cada establecimiento instalado, según su categoría, respecto de otros establecimientos que pretendan instalarse. La distancia se medirá, proyectando el radio sobre un mismo plano horizontal, al margen de la rasante en la que se encuentre cada local.

2. Las mediciones se tomarán desde los puntos más próximos entre sí de los respectivos locales, tomando como referencia los siguientes puntos de medición: cualquiera de las fachadas exteriores tanto del local previsto para la nueva actividad, como de los locales más próximos con actividades existentes.

3. Se considera fachada exterior de un establecimiento, la propia del edificio que linda con el perímetro interior del local y da frente a una calle o espacio de uso público.

*Artículo 10. Régimen Especial de zonas saturadas.*

1. A las áreas que sean calificadas zonas saturadas se les aplicará el régimen especial previsto en este artículo. Se definen como tales aquellas en las que la acumulación de establecimientos unida a la configuración y dimensiones de las calles y plazas producen que los efectos acumulativos por ruidos y olores producidos por los propios locales y sus usuarios sea de tal entidad que no es posible subsanarlos con las medidas correctoras ordinarias.

2. La declaración de zonas saturadas o la modificación de éstas se realizará previa tramitación del procedimiento de aprobación o modificación de ordenanzas municipales. El expediente se iniciará de oficio o a instancia de cualquier interesado. En todo caso, será preciso informe técnico motivado que justifique la procedencia de tal declaración.

3. En las áreas o zonas saturadas no se permitirá la implantación de nuevas actividades de las reguladas en esta ordenanza.

4. En las áreas o zonas saturadas será de aplicación el régimen general relativo a reformas, ampliaciones y divisiones (artículo 7 de la ordenanza).

EK\CV GAO-I-2019-02861

*Lehen Xedapen Gehigarria. Birmoldatze-areak.*

Birmoldatze-areatzat hartuko da Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko ondorengo area, harik eta behin betiko onartutako antolamendu xehatuko tresnaren bat izan arte, eta hortaz, 16 hirigintza area –OR Hegoalde– ordenantza honetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

*Hirugarren Xedapen Gehigarria. Ordutegi murriztuko tabernak.*

Alkoholdun edariak zerbitzeko baimena duten establezimenduak, baina Udalak, distantzia erregimenetik salbuetsita, 8:00 eta 22:00 arteko ordutegian aritzeko baimendu zituenak, ordutegi horrekin jardungo dute Udalak berariaz, bestelakorik erabakitzen ez duen bitartean.

Ondorengoak dira ordutegi murriztua duten tabernak:

— Barren plaza 1. Napar Zahar.

— Bixkonde kalea 2/ Ipar kalea 16. Tidore.

— Gipuzkoa kalea 13. Sanz Enea.

— Gipuzkoa kalea 62. Oneka.

— Ipar kalea 3. Lukas taberna.

— Kale Nagusia 19. JA.

— Lege Zaharren 3. Mauka.

— Lege Zaharren 6. Oneka.

— Martiñene Plaza 1. Sebas Vinoteca.

— Patxiku kalea 5. Noiz Bait.

— Trinidade kalea 5. Enoteka Gotzon.

— Zelai Ondo 23. Iluntze.

*Disposición Adicional Primera. Áreas de reconversión.*

Se declara área en reconversión y, por tanto, sujeta al régimen establecido en el artículo 9 de la Ordenanza, el área urbanística 16 OR Hegoalde del plan general de ordenación urbana de Zarautz hasta que no cuente con instrumento de ordenación pormenorizada aprobado definitivamente.

*Disposición Adicional Tercera. Bares con horario restringido.*

Los establecimientos con autorización para servir bebidas alcohólicas a los que el Ayuntamiento excluyó del régimen de distancias y les otorgó licencia para desarrollar su actividad exclusivamente entre las 08:00 y las 22:00 horas, seguirán desarrollando la actividad durante ese horario, salvo que el Ayuntamiento expresamente autorice otra cosa.

Los bares con horario restringido son los siguientes:

— Barren plaza 1. Napar Zahar.

— Bixkonde kalea 2/ Ipar kalea 16. Tidore.

— Gipuzkoa kalea 13. Sanz Enea.

— Gipuzkoa kalea 62. Oneka.

— Ipar kalea 3. Lukas taberna.

— Kale Nagusia 19. JA.

— Lege Zaharren 3. Mauka.

— Lege Zaharren 6. Oneka.

— Martiñene Plaza 1. Sebas Vinoteca.

— Patxiku kalea 5. Noiz Bait.

— Trinidade kalea 5. Enoteka Gotzon.

— Zelai Ondo 23. Iluntze.

EK\CV GAO-I-2019-02861